

Lurreko mikroorganismoen aniztasuna mantentzeko praktika egokiak

Baratzezaintza ekologikoaren ikuspegitik, gure landareak hazteko behar-beharrezko euskarria da lurra, gure landareak eutsi eta elikatzen baititu.

Baina, ba al dakigu zenbat eta zenbat diren gure oinen azpian bizi diren mikroorganismoak eta ze funtzio garrantzitsuak betetzen dituzten?

Lur gramo batean, 1.000 miloi mikroorganismo bizi dira, ondoak, bakteriak eta bestelakoak, eta bakoitzetik milaka espezie desberdin, batzuk ezagunak dagoeneko, beste asko eta asko oraindik ezagutzen ez ditugunak. Espezie bakoitzak lan bat betetzen du naturaren ziklo desberdinetan.

Baratzekin lotuta, mikroorganismoen laguntza dute jasotzen dute gure landareek hazteko behar dituzten elikagaiak lurretik xurgatzerakoan, lurrak elikagai mineralez aberasteko lanean dabilta eten gabe, gure landarentzako kaltegarriak izan daitezkeen beste mikroorganismoak frenatzen dituzte, landareen arteko komunikazio lanak ere egiten dituzte.

Eta zer egin dezakegu baratzeakideek edo zer ez dugun egin behar gure baratzeak lurra bizirik, osasuntsu mantentzeko? Oso arau ximpleak eta zentzudun hauek jarraitzea nahikoa da:

- Ez lurrera bota oliorik, produktu kimiko edo toxikorik.
- Lurreko mikroorganismoen aktibitate handiena pH-a 7 inguruan dagoenean ematen da. Horregatik, pH-a 7,5-etik gorakoa duten lur basikoak material azidoekin hobetzea komeniko litzateke (pinu azala edo txilarrarekin egindako ongarria adibidez). Eta alderantziz, pH-a 6,5etik beherakoa duten lur azidoei karea bota beharko genieke 1-3 urtetik behin (200 gr/m²).
- Lurra sasoian dagoenean bakarrik landu lurra. Oso hezia dagoenean lurra zapaltzen badugu, konpaktatu egiten da, lurreko poroak desagertzen dira eta airerik gabe gelditzen da lurra. Ondorioz, mikroorganismoak hil/gutxitu ere egiten dira.
- Ongarri eta material naturalak eta organikoak erabili beti. Mikroorganismoen aktibitatea handitzen da karbono asko duten materialak lurrarekin nahasten ditugunean (lastoa, e.a).
- Material edo ongarri komertzialen gomendatutako dosiak errespetatu, ez sekula gainditu. Baratze arrunt bat ongarrizatzeko, nahikoa da urtero ematea:
 - Behi simaurra erabiliz gero: 5 kg/m².
 - Zaldi simaurra erabiliz gero: 2,5 kg/m².
 - Ardi simaurra: 2 kg/m².
 - Oilo simaurra; 1,1 kg/m².
- Lurra beti estalita edukitzea komeni da. Neguan ez badugu baratzea egin nahi, ongarri berdea erein dezakegu gure baratzean udazken aldera, hazten utzi eta hurrengo urteko udaberri aldera, loratu baino lehen, moztu. Ondoren, 20-25 cm-ko geruzako lurrarekin nahastu egin behar da. Ongarri berdea erabiliz gero, neguan baratzeako lurra higatzea saihestuko dugu, mikroorganismoak mantenduko dira eta aktibatuko dira ikaragarri ongarri berdea lurperatzerakoan.

Buenas prácticas para mantener la diversidad microbiana de los suelos

Desde el punto de vista de la horticultura ecológica, el suelo es un recurso imprescindible para cultivar nuestras plantas, ya que es el encargado de sujetarlas y de alimentarlas.

Pero, ¿somos conscientes de la vida que se esconde en el suelo, bajo nuestros pies y de las funciones importantes que realizan los microorganismos que viven en él?

En un solo gramo de tierra viven 1.000 millones de microorganismos: hongos, bacterias y otros, pertenecientes a miles de especies diferentes. Algunas ya las conocemos, muchas otras especies están aún por descubrir. Y cada una está especializada en una actividad concreta de alguno de los ciclos de la naturaleza.

En relación con la huerta, los microorganismos ayudan a nuestras plantas a absorber del suelo los nutrientes que necesitan para desarrollarse, trabajan sin descanso para producir minerales que enriquecen los suelos, frenan a otros microorganismos perjudiciales para nuestros cultivos o ayudan a las plantas a comunicarse entre sí.

Y ¿qué podemos hacer los/as *baratzekides* o qué no debemos hacer para mantener vivos y sanos los suelos de nuestras huertas? Es suficiente respetar unas reglas sencillas:

- No verter al suelo aceites o productos químicos o tóxicos.
- La actividad de los microorganismos del suelo es máxima cuando el pH del suelo está alrededor de 7. Por eso, conviene aportar materiales acidificantes (abonos a base de corteza de pino, de brezo, etc.) en aquellos suelos básicos con pH mayor de 7,5. Y por el contrario, conviene realizar aportes de cal cada 1-3 años (200 gr de cal /m²) en aquellos suelos ácidos con pH menor de 6,5.
- Sólo debemos trabajar la tierra cuando está en tempero. Si pisamos el suelo cuando está muy húmedo, lo compactamos, desaparecen los poros por los que circula el aire y la población de microorganismos puede disminuir drásticamente.
- Usar siempre abonos y materiales naturales y orgánicos. La actividad de los microorganismos del suelo se activa muchísimo si aportamos y mezclamos con la tierra materiales que contienen mucho carbono, como la paja.
- Respetar las dosis recomendadas de abonos y materiales, no sobrepasarlos. Para un suelo de huerta medio es suficiente abonar cada año con:
 - Si usamos estiércol de vaca: 5 kg/m².
 - Si usamos estiércol de caballo: 2,5 kg/m².
 - Con estiércol de oveja: 2 kg/m².
 - Con gallinaza: 1,1 kg/m².
- No conviene mantener nunca el suelo desnudo. Si preferimos no cultivar la huerta en invierno, podemos realizar una siembra de abono verde en otoño y dejar que se desarrollen las plantas hasta el comienzo de la primavera del año siguiente. Las cortaremos justo antes de que florezcan y las incorporaremos a los primeros 20-25 cm del suelo. De este modo, el suelo no se erosionará en invierno, los microorganismos del suelo se mantendrán en buenas condiciones y se activarán enormemente cuando enterremos el abono verde.